



**Kapitalismoaren kontrako zerrenda ,
2014 eko herriko etxeko hauteskundetarako ,
Front de Gauche eta NPAk sostengaturik**

***Lan munduko bozeramailea izan nahi du gure zerrendak, eskakizun eta borroken bozera-
maile ,
jendarteko xumeenen eta langilen serbitzuko,
peko erre kara garamatza kapitalismoarekin bukatzeko.***

**Angelun bestetan bezala , hauteskundeak apostu
nazionalak izanen dira, hiriari buruzko politikak, es-
tadoanarekin zerikusia izanez.**

Hollande- Ayrault gobernuak , eskuineko gobernuak bezalako politika antisoziala darama. Angeluko gehien-
goak sostengatzen eta bideratzen duen horrelako poli-
tikaren kontra gaude . Hortako aurkezten da gure
zerrenda , independentzia hutsean , gure ikusmoldeen
plazaratzeko .

Enpresetarik kanporatzeak debekatzea , lana eta en-
pleguak denon artean partikatzea, soldadak behitu gabe
bainan alderantziz, emendatzea, erretiroaren soldata
bezala galdatzen dugu .

Dirua badago enpresen etekinetan , finantzaren mund-
uan eta nagusieri onartu oparietan ala kotizazioak ez-
abatuz .

**Gure lehentasunak jendartearen
gehiengoarenak dira**

- Bizitegi zozialak

Angeluko bizitegien %12 a dira gaur egun : eskasegi .
Guretzat lehentasuna izanen da hoi en eraikitzea.

- Zerbitzu publikoak

Garraio publikoak garatu behar dira, BAB hirigune
osoan, enpresa publikoaren bidez eta dohainik.

Urak ere zerbitzu publikoa izan behar du eta gastu
prezioan.

- Zergak

Gaurko sistema , zuzengabea eta pizuegia dena xumee-
nentzat aldatu behar da.

- Demokrazia partaliera:

Auzoetan komiteak sortzea nahi dugu , herriko etxetik
bereiz.

Erabaki nagusiek eztabaidatuak izan behar dute eta er-
referendumaren bidez trenkatuak.

**Euskal herriaren aldeko eskubide demokratikoak
zaindu nahi ditugu**

- Kultura eta hizkuntza

Elkarteak eta erakaskuntza lagunduz , halaber gaskoinar-
entzat.

Ikastolak sostengatuz, irakaskuntza publikoko gela
elebidunak bezala.

- Lurralde elkargoari buruzko galdeketa al de gira, Eu-
skal Herriarentzat instituzio baten onartzeari buruzko
lehen urratsa.

- Bakea euskal herrian :

Euskal preso en eskubide en bermatzea, iheslarien etxerat
itultzea eta errepresioaren gelditzea eskatzen dugu.



Lagun gaitzazue!

- Gure paperrak banatuz zuen bizi gunetan.
- Bilkurak antolatuz lagun artean.
- Gure zerrenda lagunduz diruz edo bestela .